

# Emakume Abertzale Batza

Emakume bulartsuak dira eusko emakumeak. Bear izan dan guzietan agertu izan digute eusko oitura garbien alde ta eusko eskubideen alde jokatzeko guk gizonok ainbateko adorea dutela.

Ez da ordea ori guk gure emakumeei arkitzen diegun doirik onena. Emakumea, Jainkoak gizonaren lanak saritzeko ludi onetara ekarritako bitxi berdineziña da; emakumea gizonaren ludi onetako poz eta atsegiña da. Emakumea gure atsekabe naiz atsegin aldietan gurekin bat egiten duena da gure alsegin aldietan gurekin batera atseginduaz eta gure atsegabe aldietan gure laguntzalle eta pozgarri bikaña izanaz. Goretsia bedi emakumea, ta milla bider goretsia eusko emakume bikaña, doaez ornitua.

Guk gure «emakumeei» arkitzen diegu doirik on ta txalogarriena goimatasuna da. Eta gure «emakumeen» goimaitasuna zenbaterañoko dan jakiteko oroitu gaitzen ta aztertu dezagun, zerbait bederik, Emakume Abertzale Batzaren lana.

Esan genezake Emakume Abertzale Batzaren lan guztia, zeregin guztia, besteri on egitea dala. Txirri etxeetara joango zaizkitzu gure «emakume» txalogarriak eta otza arkitzen dutenetara berogarria ta gosea arkitzen dutenetara ogia eramango dizkitzute. Baita gure «emakumeak» zenbait emakume bezela arroak eta kaskariñak, opariak bere burua agertzeagatik egiten dituztenetak. Biotz on da zabalekoak, kristau ikasbidea guziaz ezartzen digun bearkuna betetzearren egiten dute, egiten duten guzia. Ez beraz hurreko txatxarkeriei begira jainkozko asmoa berekin du'ela baño.

Askotan eta askotan agertu izan dute gure «emakumeak» beren biotz zabala, Euzkadi maite onetako erriren batean ezbear aundial izan badira kale edo baserri etxe arretar bearra ikusi ba dute, lagun urkoari nundik lagundua ikusi du'enean an joan dira gure

«emakumeak» biotza garbi, arpegia alai, itz goxoz bear dunari bear duna ematera ta atsegabe duanari bere ontasunaren ixpillu dan alaitasuna erastera. Txalogarria benetan eusko «emakumea». Guk beintzat ez dizkiotegu ukatuko gure txaloak. Bakoltzari berea ematen eta aitortzen dak'gunetakoak bait gera.

Gure emakumeen leialtasuna ez da ordea goimaitasunean bakarrik agertzen edo beintzat; len aitatu diegun erako goimaitasunean. Gure «emakumeak» ortaz gañera gogo janari liran ikaskai asko ta asko ematen dituzte. Erri askotan kristau ikasbidea aurrei irakazteko apaiz jaunak dituzten laguntzallerik onenak emakumeak dira. Ikastola askotara joaten dira ezjakinien buruak argitzera ta ikaslien biotzak Jaungoiko ta Euzkadi bidean jartzera. Ez dute lan oiek guziagatuk gure «emakumeak» ezer ere nai izaten; eta askotan eskerronik ere ez dute jasotzen. Eskerrak ez dutela egiten dutena diruzalekeriagatik edo beren buruak eder egiteagatik egiten. Jaungoikoak guziei lagun urkoa maite izateko jarri zigun bearkunagatik baño.

Eta batzuek goimaitasunean eta beste erako egintza onak egiten dirauten bitartean, besteak ikasten eta ikasten salatzen dira, gizonekin bat egiñik, guzian arte, gizon da emakume, Euzkadi jakintza erpiñetara eraman al izan dezagun.

Emakume Abertzale Batzaren lanak. Emakume Abertzale Batzaren izatea, Emakume Abertzale Batzaren ontasun guzia lau emakumeren bitartez agertu genezaizuteke.

Lau emakume oiek Goiatasunaren, Euskal p'zkundearen, Euskal ertziaren eta Euskal jakin'zaren ordezkari dirala esan genezaizuteke: Ganuza'ren Lardizabal'dar Ane andrea (Goyan bego) oraindik orain gu utzi ta ludi obego batera joana, Muxika'tar Tene, Kareaga ta Azpiazu andereñoak dira lau emakume auek. Eta ona zergatik esaten degun lau emakume oiek Goimaitasunaren,



*Munita'tar Inake: Tolosa'ko euskel-ikastolako irakas-  
leme zan; «Lizardi» antzezlari taldeko antzezlari bikaña  
gaur lekaiame dago.*



*Muxika'tar Tene: euskel idazle yayoa; here antzerki-lan  
batek lenen saria merezi izan zuan.*

Euskal-pizkundearen, Euskal-ertiaren eta deguna. Oraindik orain, ez bat eta ez bi guretzat beintzat, sekulako erti-lan erakusketa bikaña egin zigun Euzko Pizkundearen artean. Erakusketa ura ikasle guziak txalotu zuten. Izparringiak goi-goraño jaso. Gai onetan jakintsu diranak itz goxo xamurrez aipatu. Geroz'ik jakin degu Kareaga andereñoak lan da lan jarraitzen duela. Ez da ba arritzeko izango laister beste bere erakusketa edo espozizio bat ikusi al izatea. Pozturako giñake ta bai benetan txalotu ere auzo langille pizkor ta argia.

Lardizabal'dar Ane andrea, bizi izan zan bitartean, ongille purrukaturia izan zan, biotz bera, bestearen nekea ezin eraman izaten duten aietakoa. Aren esku zegona emateko beti gertu. Etzun bererik ezer, guzia txiroentzat zuen da. Donosti'ko arrantzalea eta Donosti'ko arrantzale ez tiran asko ta askok ere esango lizuteke Lardizabal andrearen biotzaren zabalasuna ta ona zenbateraño koa zan. Orregatik diogu ba, Goimaitasunaren ordezkari zala.

Muxika'tar Tene'rekin ari gaituzute orain. Aspaldi'ko ezagun eta adizkide miña degu Tene etxe onetan. Euskera nun antxe izango dezute beti Tene argia. Maitakiro laz tartzan da erabiltzen du. Maitakiro ta errexkiro. Tene euskal idazle iaio-iaioa dezute. Ez da aski guk esatea. Egutegi onetan bertan, dezu'e aren lan egoki. bat eta irakurri bererik ez dezu'e. Baño Egutegi onetan argi taltzen degun bere lanak baño izen aundiagoa damaño antzertu gaitan izan zuan garaipean aundiak. Ene'xo, Muxika andereñoak lenen saria irabazi zuan igaz egindako antzertu sarketa batean. Emakume guziak eta ez emakumeak bakarrik gizonok ere baizik Tene añean sa'atuko ba giña ez al da egia euskera indartuta ikusi al izango gendukela?

Kareaga andereñoa da irugarren aita'u

Azpiazu andereñoa laugarrena. Jakintza gaitan du onek bere berezitasuna. Letradua da, abogadua, Emakume Abertzale Batza'k bere bazkidiaren artean izan duan lenengoa. Bere ikastaldia bukatu ta abogadu-agria bereganatu zuan bezin laister Emakume Abertzale Batza'ri eskeñi zitzaion bere bear aldiatarako. Ba degu beraz euskaldun guziok, baño abertzaleok bereziki zeñek aldeztu. Emakumea oraingoan gure aldezlari. Aberri'ak alabatxo baten laguntza bikaña bereganatu du.

Orrelakoxeak dira gure «emakumeak». Langilleak, mara'isak, bear danean arpegia ematen dakitenak, guzitarako egokiak. Onelako emakumeak dituan Aberria illezkorra izan bear nai ta ez Zerbattegatik iritetzen da gero ta sendoago gure Euzkadi maitea alde guzietatik etorri oi zaizkion eraso aldien ondoren.

Orrelakoxeak dira gure «emakumeak». Langilleak, mara'isak, bear danean arpegia ematen dakitenak, guzitarako egokiak. Onelako emakumeak dituan Aberria illezkorra izan bear nai ta ez Zerbattegatik iritetzen da gero ta sendoago gure Euzkadi maitea alde guzietatik etorri oi zaizkion eraso aldien ondoren.



### BIDEZKO NEGAR EGITEA

Andoni'xo irugarren bizitzako eskail burun negarrez dago.

—Zer dezu ordea onela negar egiteko?, galdetzen dio bere amak.

—Izeba erori da eskallerak bera ta...

—Esan dizut ordea lenago ere miñik ez duela artu.

—Etzuen artuko baño, Mirentxu'k ikusi du nola erori danta nik ezi!

### NEGOZIYO BIKANĀ

—Dirurik irabazi nai ba dezu ona negoziyo b'kaña: automobil eixe oni dirua aurreratu zaiozu.

—Automobillak eta negoziyua? Automobillakiko eman bearrak inoiz bukatzen al dira ba? Ezagun da bai nik bezelako automobillik ez dezula.

### BETI «SAKRIFIKATZEN»


—Gerra asi zanean, zarregia izan arren joateko gertu negon nere Aberriagatik «sakrikatzeko».

—Eta beraz...

—Ez eixeokoak etzidaten utzi ta diputadu egin nintzan...



*Kareaga'tar Miren Josebe: margolari bikaña;- orain ufengo Euzko Pizkuade'n egin zuan erakusketekin guziak afitu zituon.*



*Aizpurua'tar Margarite: abogadutza oraintxe bukatu be-  
fia da E.A.B.'ko bazkideen artean lenengo kafaraduna da.*